

ARNAS INFЕКZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINITZA **Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)**

2025-2026 denboraldia
(2025eko irailaren 29tik 2025ko irailaren 27ra)

10. astea (2026ko martxoaren 2tik 8ra)


Gripearen eta bronkiolitisaren tasak oinarritzko mailan (inter epidemikoa) mantentzen dira. COVID-19aren tasak baxua izaten jarraitzen du.

- Lehen mailako arretako (LMA) sarean AIA tasa 299,3 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (289,8/100.000 aurreko astean).
- Lehen mailako arretan, gripe-sindromearen, bronkiolitisaren eta COVID-19aren tasak baxu mantentzen da.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 48 lagin jagoleen % 54,2 baieztatu da, 2 ABS eta SARS-CoV-2 bat detektatu direlarik, baina ez gripe-birusik.
- Osakidetzako ospitale-sarean, AIA larriaren tasa 13,0 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (13,1/100.000 aurreko astean).
- LMAko AIA- eta bronkiolitis- (< 2 urte) tasak eta larrialdietako gripe-sindromearen tasa oinarritzko intentsitate mailan (balio inter epidemikoa) mantentzen dira.
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 97 ABS, 22 gripe-birus eta 10 SARS-CoV-2 erregistratu dira.

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 299,3 kasukoa izan da (289,8/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 230,0/100.000 izan da Araban, 275,3/100.000 Bizkaian eta 369,7/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arreta-sarea. 2025-2026, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 2838,9 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 1-4 urtekoen eta 5-14 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 1572,8 eta 389,8 kasurekin, hurrenez hurren.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



AlAekin lotutako Prozesu Arin Automugatuen (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AlAren sintomaren bat duen *Sukarra*¹) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 114,1 kasukoa izan da (109,9/100.000 aurreko astean).



Erakunde Sanitario Integratuko (ESI) intzidentziari dagokionez, tasek gora egin dute ESI gehienetan.


AlAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESlaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE

ESI	Tasa 10. astea	Tasa 9. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	246,0	251,2	0,98 (0,88-1,09)
Arabar Errioxako ESI	509,5	407,6	1,25 (0,86-1,83)
Barakaldo-Sestaoko ESI	247,4	216,8	1,14 (0,97-1,34)
Barrualde-Galdakaoko ESI	274,3	288,1	0,95 (0,87-1,05)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	304,5	305,1	1,00 (0,92-1,09)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	268,7	263,1	1,02 (0,89-1,17)
Uribeko ESI	231,4	233,7	0,99 (0,88-1,12)
Bidasoako ESI	331,4	287,7	1,15 (0,96-1,38)
Debararrenako ESI	363,5	303,6	1,20 (1,00-1,43)
Debagoienako ESI	291,5	269,8	1,08 (0,88-1,33)
Donostialdeako ESI	344,7	326,1	1,06 (0,98-1,14)
Goierri-Urola Garaiaiko ESI	420,6	371,9	1,13 (0,98-1,30)
Tolosaldeako ESI	461,7	452,5	1,02 (0,87-1,20)

¹ Informazio gehiagorako kontsultatu [AlAren jagoletzaren metodologia](#)

LMAn, gripe-sindromearen tasa 2,0 kasu 100.000 biztanleko balioan kokatu da (3,0/100.000 aurreko astean). Bronkiolitisaren tasa (2 urtetik beherakoetan) 100.000 biztanleko 256,2 kasukoa izan da (241,8/100.000 aurreko astean) eta COVID-19arena baxu mantentzen da 100.000 biztanleko 0,3 kasutan (0,5/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 48 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 54,2 baieztatu dira. 2 ABS eta SARS-CoV-2 bat atzeman dira, baina ez gripe-birusik. 6 errinobirus, 6 metapneumobirus eta 6 parainfluenza birus ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMAn eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2025-2026, EAE



Gripe-birusaren positibotasuna % 0,0an kokatu da aste honetan (% 9,5 aurreko astean) eta ABSrena % 4,2an (% 4,8 aurreko astean). SARS-CoV-2aren positibotasuna % 2,1ekoa izan da (% 2,4 aurreko astean).

Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2025-2026, EAE


	10. astea		9. astea		2025-2026 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	0	0,0	4	9,5	382	30,6
SARS-CoV-2	1	2,1	1	2,4	18	1,4
ABS	2	4,2	2	4,8	93	7,5
Metaneumobirus	6	12,5	4	9,5	29	2,3
Parainfluenza	6	12,5	3	7,1	41	3,3
Adenobirus	1	2,1	1	2,4	16	1,3
Errinobirus	6	12,5	5	11,9	223	17,9
Urtaroko CoV	5	10,4	4	9,5	81	6,5
Enterobirus	0	0,0	0	0,0	8	0,6

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean

Zaintza sindromikoa


AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratortzen direnak. AIAL tasa 13,0 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (13,1/100.000 aurreko astean), 13,0/100.000 gizonetan eta 13,0/100.000 emakumeetan.

AIAL tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 100.000 biztanleko 65,3 kasurekin, ondoren 64 urtetik gorakoen eta 1-4 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 42,5 eta 6,7 kasurekin, hurrenez hurren.

**AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**



Gripearen diagnostiko-kodeekin (J09-J11) erregistratutako ospitaleratzeen tasa 0,2koa izan da 100.000 biztanleko (0,2/100.000 aurreko astean), ABSren kodeekin (J12.1, J20.5 y J21.0) ospitaleratutakoena tasa 1,1ekoa 100.000 biztanleko (0,9/100.000 aurreko astean) eta COVID-19aren kodearekin (U07.1) ospitaleratutakoena 0,0 kasukoa 100.000 biztanleko (0,0/100.000 aurreko astean).

**Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. SARS-CoV-2aren positibotasuna % 0,4koa izan da (% 0,5 aurreko astean). Gripe-birusaren positibotasuna % 1,3an kokatu da aste honetan (% 3,3 aurreko astean) eta ABSrena % 14,1ean (% 13,9 aurreko astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE

	10. astea		9. astea		2025-2026 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	229	0,4	222	0,5	6688	1,6
Influenza	235	1,3	245	3,3	6908	23,9
ABS	213	14,1	216	13,9	6253	16,7

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoen arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE




Atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak

Epidemia Mugikorren Metodoa (*Método de Epidemias Móviles*, MEM) ezarri da Euskadin arnas infekzio akutuek (AIA) zaintzeko, atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak zenbatesteko. Horri esker, modu objektiboan identifika daitezke urtaroko epidemien hasiera eta amaiera, eta haien intentsitatea sailkatu.

Lehen mailako arretako AIArein zaintzari dagokionean, atalase epidemikoa 2025/40 astean gainditu da, 2026/08 astean gaur egun mantentzen den oinarrizko mailara bueltatuz. Epidemian intentsitate maila baxuko gailurra neurtu da.


**AIaren epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta.
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE**



Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarrizko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Gripe-sindromearen, ospitaleetako larrialdietatik ateratako datuen arabera, atalase epidemikoa 2025/42 astean gaingitu da, 2026/05 astean gaur egun mantentzen den oinarrizko mailara bueltatuz. Kasu honetan, epidemiaren intentsitatea maila alturaino heldu da.


**Gripearen epidemiaren intentsitatea larrialdietan serie historikoarekin alderatuta.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE**



Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarrizko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Azkenik, 2 urtetik beherakoen lehen mailako arretako bronkiolitisaren diagnostikoei dagokienez, atalase epidemikoa 2025/48 astean gaingitu da, 2026/05 astean gaur egun mantentzen den oinarrizko mailara bueltatuz. Epidemian, intentsitatea ez da maila baxutik pasa.

Bronkiolitisaren (<2 urte) epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE




Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarritzko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 97 ABS, 22 gripe-birus eta 10 SARS-CoV-2 detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 22 gripe-birusetatik, 10 A motakoak izan dira, 2 A(H3) y 10 A(H1)pdm09. 2025/40 astetik 8670 detekzio erregistratu dira, 8625 (% 99,5) A motakoak eta 45 (% 0,5) B motakoak. Azpitipatutako A motako 4577 birusetatik, 2731 (% 59,7) A(H3) eta 1844 (% 40,3) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2025-2026, EAE



Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2026ko martxoak 11

Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza